


2022an, ospitaleratzeak %4,1 gehitu ziren Euskal AEko ospitaleetan

Ospitalizazioen %84 ospitale publikoetan artatu ziren, Estatuko batez bestekoa baino ia ehuneko 12 puntu gehiago eta Kataluniakoa baino 30 puntu gehiago

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko ospitaleetan 243.427 ospitalizazio izan ziren 2022an, aurreko urtean baino %4,1 gehiago eta Estatu osoko %5,1. Arreten %84 ospitale publikoetan egin ziren, estatuan baino ehuneko hamabi puntu gehiago (%72,4), eta hamazazpi autonomia-erkidegoetatik hamaikaren aurretik. Horien artean daude Katalunia (%52,8), Balear Uharteak (%63,6), Madrilgo Erkidegoa (%65,9) eta Kanariak (%69,7); azken horiek, gainera, arreta publikoko datuak Espainiako batez bestekoa baino txikiagoak dira.

Ospitaleratzeak, ospitalearen, Erkidego eta Hiri Autonomoaren mendekotasunaren arabera (%).
2022




Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Euskal AE Espainiako ospitaleetako erikortasun-tasa altuenak dituzten autonomia-erkidegoen artean dago

Euskal AEn, 100.000 biztanleko 11.113 ospitalizazio-tasa erregistratu zen, Estatuko batez bestekoaren (9.944) eta ospitaleratze-tasa handienak dituen hirugarren autonomia-erkidegoaren gainetik, Kataluniaren (11.511) eta Asturiasko Printzerriaren (11.472) atzetik.

100.000 biztanleko ospitalizazioen tasa, Erkidego eta Hiri Autonomoen arabera. 2022



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Sexuaren arabera, gizonen proportzioa (%50,9) emakumeena baino handixeagoa izan zen (%49,1), eta estatu mailan altuagoa izan zen emakumeen artean (%51,6). Aitzitik, haurdunaldi, erditze eta puerperioko gertakariak kontuan hartu ezean, emakumeen ehunekoa %45,8ra jaitsiko litzateke Euskal AEn (%47,5 Espainian).

Euskal AEko ospitaleetan ospitaleratutako pertsonen %53k 65 urte eta gehiago zituen; Estatuan, berriz, %48k

65 urte eta gehiagoko ospitalizazioen kopurua Euskal AEko ospitalizazioen %53,2 izan zen 2022an (%51,1 2021ean), ehuneko bost puntu gehiago Espainiakoa baino (%47,9). Talde horren barruan, 85 urte eta gehiagoko pertsonen arretak egin zuten gora gehien (%11,3), baina 65-84 urte bitartekoek hartu zuten asistentzia-kopuru handiena (%37,3

eta %33,7 Espainian), gero 45-64 urte bitartekoek (%24,6) eta 85 urte eta gehiagokoek (%15,9).

Gora egin dute arnas gaixotasunek eragindako ospitaleratzeek, eta Euskal AEn ospitalizazioen hirugarren kausa dira, zirkulazio- eta digestio-gaixotasunen atzetik


Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (%12,8) eta digestio-aparatukoak (%12,6) izan ziren ospitaleratze-kausa nagusiak, Estatuan. Bien artean ospitalizazioen %25,4 hartu zuten (%24,6 Espainian).

2021. urtearekin alderatuta, arnas gaixotasunak kausa dituzten ospitaleratzeak %36,3 igo ziren 2022an, eta ospitalizazioen hirugarren kausa ohikoena izan zen Euskal AEn (%10,6), baita Estatuan ere (%10,2); ondoren, tumoreak (%9,4) eta lesioak eta pozoitzeak (%9,2). Bestalde, haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren taldeak izan zuen alderik handiena Euskal AEko eta Estatuako gainerako lurraldeetako ospitalizazioen artean, %6,1 eta %7,8, hurrenez hurren.

Zirkulazio-aparatuko, digestio-aparatuko eta arnas aparatuko gaixotasunek eragindako ospitaleratzeen kopurua handiagoa izan zen gizonen artean

Haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren taldea kontuan hartu gabe (%12,3), bi sexuak bat etorri ziren ospitalizazioko hiru kausa nagusietan, baina honako berezitasun hauekin: zirkulaziokoak izan ziren lehenengo lekuan gizonen artean eta digestiokoak emakumeen artean, eta ospitaleratzeen kopurua handiagoa izan zen gizonen artean aipatutako bi taldeetan, arnas gaixotasunekin batera.

Ospitaleratzeak gaixotasun ugarienen arabera Euskal Aen eta Espainian, sexuari jarraiki (%). 2022



Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-estatistika. INE. Ospitaleetako erikortasun-estatistika

Gaixotasun talde ohikoenen artean, zirkulazio-aparatuari dagozkion ospitaleratze gehien eragin zituzten arrazoi espezifikoak hauek izan ziren: garuneko infartua eta bihotz-gutxiegitasuna bi sexuetan; digestio-aparatuaren, kolelitiasia (besikulan kalkuluak) emakumeen kasuan, eta iztai-hernia gizonen kasuan. Arnasketa-aparatuen taldean pneumonia eta biriketako beste gaixotasun buxatzaile kroniko batzuk (BGBK) nabarmendu ziren, eta gizonen artean presentzia handiagoa izan zuten. Tumoreei dagokienez, maskuriak, bronkioak, birikak eta prostatak eragin zuten ospitaleratze gehien, gizonen artean prebalentzia handia baitzuten.

Gizonen batez besteko ospitaleko egonaldia emakumeena baino handiagoa izan zen

Euskal AEko ospitaleetan ospitaleratutako pertsonak 2.045.883 egun eman zituzten guztira, hau da, 2021aren aldean %6,3 gutxiago. Batez besteko egonaldia 8,4 egunekoa izan zen (8,1 Estatuan), eta handiagoa izan zen gizonen artean (9,3 egun) emakumeen artean baino (7,5 egun); gizonen kasuan, Estatukoaren gainetik egun zen (8,8 egun).

Ospitaleratzeak, egonaldi-egunak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko ospitaleetan, gaixotasun talde ohikoenen arabera. 2022

	Ospitaleratzeak		Egonaldi-egunak		Batez-besteko egonaldia		
	Kopurua	%	Kopurua	%	Guztira	Gizonak	Emakumeak
GUZTIRA	243.427	100	2.045.883	100	8,4	9,3	7,5
Zirkulazio-aparatuak	31.094	12,8	241.728	11,8	7,8	7,7	7,9
Liseri-aparatuak	30.673	12,6	157.199	7,7	5,1	5,0	5,3
Arnas aparatuak	25.840	10,6	169.640	8,3	6,6	6,0	7,2
Neoplasiak	22.954	9,4	156.303	7,6	6,8	7,1	6,4
Traumatismoak, pozoidurak eta kanpo kausen beste ondorioak	22.353	9,2	147.014	7,2	6,6	6,6	6,6
Aparatu muskulueskeletikoak	18.609	7,6	82.407	4,0	4,4	4,3	4,6
Aparatu genitourinarioak	17.950	7,4	77.750	3,8	4,3	4,3	4,4
Haurduntza, erditzea eta erdiberriak	14.752	6,1	46.107	2,3	3,1	.	3,1
Sintoma eta aurkikuntza anormal klinikoak	10.806	4,4	54.316	2,7	5,0	5,1	4,9
Helburu berezietarako kodeak (COVID-19)	9.229	3,8	76.139	3,7	8,3	8,6	7,9
Nahasmendu mentalak eta portaerarenak	7.572	3,1	591.154	28,9	78,1	98,7	56,3
Gaixotasun infekzioso eta parasitario batzuk	6.282	2,6	57.918	2,8	9,2	9,5	8,9

Ehuneko ospitaleratze eta egonaldi guztien gainean kalkulatu da

CIE -10 : Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 10. bertsioa

Data 2024ko Marboaren 21a

Iturria: Eustat. Ospitaleetako erikortasun-inkesta

Buru-nahasmenduen eta portaera-nahasmenduen taldea gainerako gaixotasun-taldeetatik bereizten da, ospitaleko egonaldiaren iraupen luzea dela-eta zenbait patologiatan (eskizofrenia eta nortasun- eta portaera-nahasmenduak). Talde hori izan zen egonaldi guztien %28,9 eta batez besteko egonaldi-egunak 78,1 izan ziren (98,7 gizonetan eta 56,3 emakumeetan)

Gainerako gaixotasun-taldeei dagokienez, egonaldi gehien zirkulazio-aparatuak (%11,8), arnas aparatuak (%8,3), digestio-aparatuak eta tumoreak (%7,7 eta %7,6, hurrenez hurren) metatu zituzten; aitzitik, jaiotza-inguruko gaixotasunek eta gaixotasun infekziosoak batez besteko egonaldi handienak izan zituzten (10,3 egun eta 9,2 egun, hurrenez hurren).

Ohar metodologikoa

Estatistika-eragiketa hau Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egin da.

Hedapen horretan sartzen dira akutuen ospitaleak, egonaldi ertain eta luzekoak eta psikiatrikoak.

Estatuko eta nazioarteko estatistikekin konparatzeko arrazoiak direla eta, ospitaleratze-modalitatean egun bateko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak bakarrik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira kontuan hartzen 0 eguneko egonaldia dutenak. Egonaldiaren iraupena honela kalkulatzeko: ospitaleratze-dataren eta alta-dataren artean igarotako egun-kopurua, ospitaleratze- edo alta-orduak kontuan hartu gabe.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62